

Irakurketa ohiturak literatur sisteman: generoa diagnostikatzeko eremu interesgarria

Gema Lasarte Leonet

Hizkuntza eta literaturaren Didaktika Saila
Gasteizko irakasle eskola
Euskal Herriko Unibertsitatea

GAKO HITZAK: Irakurketa ohiturak, generoa, haur /gazte literatura, literatur sistema.

1. SARRERA

Artikulu honetan irakurketa ohituren feminizazioaz dihardugunean, edota generoa arakatzeaz, ez gatzazkio lotzen irakurleria femeninoa iker-tzeari soilik, baizik eta literatur sistema (Even-Zohar, 1990) osoa beha-tzeari. Lehenik, kontuan izan ditugu emakume idazle, ilustratzaile, literatur pertsonaia femenino nahiz emakumeari atxikitzen zaizkion gaiek zenbate-rainoko oihartzuna izan duten ikerturiko populazioak eginiko testu irakur-ketan. Hartara, populazioak eginiko irakurketen bidez emakumetasunak (autorian nahiz iruditegian) zenbaterainoko presentzia izan duen aztertu nahi izan da. Bigarrenik, emakumearen presentzia literatur sistemaren tes-tuinguruan antzeman nahi izan da, eskolaren eta etxearen esparruan, be-tiere ikerturiko populazioaren irakurketa ohiturei lotuta.

Irakurketa ohituren bidez literatur sisteman, oro har, eta irakurketa ohi-turetan partikularrean, generoa aztertu ahal izateko emakumearen presen-tzia neurtzea ahalbidetzen duten aldagaiak sartu dira, atal metodologikoan aurrerago zehaztuko dugun bezala. Hori horrela, ikerketa hau Espainiako Editoreen Gremioak eta Kultura Sailak ohiko dituen irakurketen inguruko ikerketa deskriptiboak osatzera letorke. Azken hauek urtero irakurketa ohi-turen inguruan eta literatur alorrean emakumeen nagusitasuna azpimarra-tzen dute. Espainiako Editoreen Gremioak eta Kultura Sailak 2010ean egi-niko ikerketak agerian utzi zuen Espainian 14 urtetik gorako biztanleriatik

% 90ek irakurtzen duela edozein gai eta formatu dela ere gutxienez hiru hilabeteko maiztasunez. % 78.1ek egunkariak irakurtzen ditu, % 60.3ek liburuak, % 48.9ek aldizkariak eta % 13.7ek komikiak gutxienez hiru hilabete behin. Literatur irakurketan, artikulu honek ikertzen duen arloan alegia, emakumeen kopurua % 64.3koa litzateke, gizonezkoena % 56.4koa denean. 2004ean % 56.2ko datua zen emakumeei zegokiona, gizonezkoiei zegokiona, aldiz, % 53.9koa.

Zentzu honetan oso litzateke adierazgarria, sarrera moduan bada ere, azkeneko hogeitun urte hauetan emakumezkoak, lehen gizonezkoak baino gutxiago irakurtzen zutenak, zeregin honetan buru jarri izana. Laura Freixasek (2009) dioenez, honen argibide erraza emakumeen ikasketa mailaren igotze nabarmenean legoke. UNESCOk diosku munduko 875 milioi alfabetoetatik bi heren emakumezkoak direla. Espainian, 1900 urtean, % 54 emakumezkoak ziren alfabetatugabeak, % 36 gizonezkoak ziren bitartean, eta Unibertsitatera sartu zen lehenengo emakumea 1910ean sartu zen Freixasen arabera (2009, 60 orr.).

Arras esanguratsua da, beraz, goi mailako hezkuntzan xx. mendean hasi ziren emakumeak handik mende batera literatur merkatu espainiarrean nagusitzera pasa izana edota «emakumeen *boomaz*» zer esan eman izana. Honen harira, Freixasek (2009) azterketa zehatz eta sistematikoan, berresten du *boom* horren inguruko esamesek ez dutela inolako funts zientifikorik eta ez dela egia emakumeak Espainiako edizioaren kudeaketan lehen postuak bereganatu dituztela. Libururik salduenen inguruan dio Freixasek, patrikako liburuetan, erdiak emakumezkoak, eta Haur eta Gazte Literaturan ere gehixeago saltzen dutela, baina emakumeek idatzitako liburuen kopurua Espainian % 30koa litzatekeela narraitiban, eta apenas existitzen dela (% 5koa edo gutxiago) fikzioan nahiz poesian.

Ezaguna da literatur sistemetan emakumeek jaso izan duten ukapen sistematikoa eta horren berri zehatza eman du kritika feministak (Gilbert & Gubar, 1994; Moil, 2006; Shovalter, 1977), baina harrigarria suertatzen da egun emakumeen agerpenak literatur sisteman horrelako aztoramendua sortzea. Eta *boomaz* hitz egitea esanguratsua da, izan ere, emakumeen literatur ibilbidea oso da gaztea Haur eta Gazte Literaturaren antzera, bi diziplinak ere azken mendeetan baitute abiaburua. Adierazgarria da beraz, berriki literaturaren esparruan hasitako emakumeen inguruan *boomaz* hitz egitea, Espainian emakume idazleak ekoiztutakoa % 30era eta Euskal Autonomi Erkidegoan % 15era iristen ez denean. Literatur alorrean lehen ukapena eta isiltasuna zena, orain balirudike nahasbiderako eta eztabaidagaien sorburu aproposa bilakatzen ari dela komunikabideak bide (*Gara* 19/11/2011), (*Argia* 2297 zk. 11/2011).

Marko kontzeptualarekin hasi aurretik, aurrekarien ingurumarian asko dira generoa eta irakurketa lotu dituzten ikerketak, batzuk aipatzearren: «Hábitos lectores de los alumnos de la ESO en la provincia de Salamanca. ¿Son el género y el entorno factores diferenciales? (2009); «Lectura y gé-

nero: leyendo la invisibilidad» (2008); Identidades de género y feminización del éxito (2001); «Mujeres, hombres y lectura. Las diferencias de género en los hábitos de lectura de libros, revistas y periódicos»(2008) eta «Lectura: ¿Un asunto de mujeres? (2008) beste ikerketa batzuen artean.¹ Ikerketa hauek guzti-guztiek komunean dute generoaren ikerketa irakurketa eremuan. Batzuek generoa eta irakurlearen artean sortzen diren harremanak antzematen dituzte, beste batzuek testua eta generoa ikertzen dituzte. Zentzu horretan, gureak aspektu berri bat gehitzen du, izan ere, helburutzat du, geroago ikusiko dugun bezala, literatur testua nahiz irakurlearen ingurumaria uztartzea edota gehitzea literatur sistema osoa barreiatu ahal izateko.

2. KONTZEPTU ESPARRUA

Hiru kontzeptutan hartzen du oin ikerketa honek edota hiru eremutan lerratzen da ikerketa hau: irakurketa ohituretan, emakumezkoak euskal literatur sisteman bizi duen egoeran, Haur eta Gazte literaturaren eremuan, hain zuzen ere; eta azkenik, generoan.

Lehenik, irakurketa ohituren inguruan arituko gara. Leandro Molinaren (2006) esanetan, bi ikuspegitik uler daiteke irakurketa ohitura: irakurtzearen errepikapen sistematikoaz lorturiko banako portaera gisara, edota irakurketan arian-arian lorturiko erraztasun modura. Teoriagile honen hitzetan, irakurketa ohitura, ikasketaren sendotze maila eta irakurketaren plazera biak batera uztartuko lituzkeen prozesu osagarria litzateke.

Santiago Yuberok eta Elisa Larrañagak (2010) irakurketa ohiturak portaera indibidual gisara ulertzen badituzte ere, irakurketa ohiturek esanahia sozial eta kulturala dutela gehitzen dute, eta hori horrela izanik, derrigorrezkoa ikusten dute gure kulturak irakurketa eta irakurketa portaerak noraino ulertzen dituen giza konpetentzia modura zedarritzea. Nahitaezkoztat jotzen dituzte Yuberok eta Larrañagak, beraz, irakurriaren ulermena lortzeko eskolak landu beharreko abildadeak eta estrategiak nahiz irakurzaletasuna bultzatzeko ikastetxearen eginbeharrak, baina, hezkuntzan lan hau buru dadin irakurketaren jendarteratze positiboa oinarrian dakusate. «En función del valor que tenga la lectura para un sujeto y para su contexto, ésta pasará a formar parte de su estilo de vida en mayor o menor medida, lo que influirá en la creación de su hábito lector» (2010, 9 orr.).

Irakurketa portaeren inguruan, Pedro Cerrillok (2005) dio sekulan baino gehiago irakurtzen dela egun, hala eta guztiz ere, irakurtzea ez da goela modan «al contrario, es una actividad muy poco valorada por la so-

¹ Ikerketa hauen argitalpenen inguruan zehaztapenak ikus bibliografian.

ciudad, por los medios de comunicación y, particularmente por los jóvenes; a muchos adolescentes, de los que leen habitualmente, les da vergüenza reconocer ante sus amigos que son lectores» (2005, 19 orr.).

Yuberok eta Larrañagak itxurazko kontraesan honen harira, azken PISA txostena (2007ko abenduan argitaratua, zeinak Espainia kokatzen duen OCDE osatzen duten 30 estatuen artean beheko postuetan) eta eskola porrota (datu publikoak % 30tik gorakoa dela adierazten dute) alderatzen dituzte adin honetan estatistikek emandako irakurle kopuru altuekin: 2007an % 85ekoa eta 2009ra arte gorakoa joan dena 92.9koa lortu arte. PISA txostenak eta eskola porrotak begi bistan jarritako zenbakiak oso ulergaitz bihurtzen dituzte, Yubero eta Larrañagaren berbetan, gazteen irakurketa ohituren inguruko datu bikainak.

El Anuario sobre el libro infantil y juvenil-ek (2011) berresten du azken datu hau, eta esaten du 10-13 bitarteko gazteen % 75ek irakurtzen duela gutxienez astean behin. Hori bai, diferentziak nabarmentzen dira orokorreko irakurketa eta irakurketa digitalaren artean. Neskek liburuak eta aldizkariak irakurtzen dituzte (helduek bezala), mutikoen egunkariak, web orrialdeak, blogak eta foroak irakurtzen dituzten bitartean (2011, 13 orr.).

Bigarren kontzeptuarekin jarraikiz, emakumearen presentzia euskal literatur sisteman behatzeari, Haur eta Gazte Literaturari² gagozkiolarik, Xabier Etxaniz behin baino gehiagotan mintzatu da azken aldi honetan HGL-ren feminizazioaz (2011, 58 orr.). Azken urte hauetan preseski emakume idazleen presentzia handitu dela dio Etxanizek, baina batez ere, ilustratzaileen kopuruan emakumezkoa gailentzen dela nabarmentzen du, ilustratzaile berri gehienak emakumezkoak direla argudiatuz (2010, 47 orr.). Hasieran genioen bezala, literatur sistema osoa barreiatuko da azterketa honetan: egileak, ilustratzaileak, testuan begi bistan azaltzen diren adierazgarri femeninoak, irakurketarekin zerikusia duten eskolako irakasle, liburuzain, nahiz etxeko gurasoek. Ikerketa honen sorburua kokatu behar da, hain zuzen ere, Etxanizek behin baino gehiagotan aipaturiko HGL-ren feminizazioan, izan ere, feminizazio hau antzeman nahi da irakurketak medio.

Literatur sistemaren araketa honetan Itamar Even-Zoharren (1990) literatur sistema kontzeptua gureganatu eta kontuan izan dugu, testuaz harago doazen elementuetan erreparatuz: testuen ekoizpena, banaketa, kritika, irakaskuntza eta akademia, besteak beste. Horregatik analizatu nahi izan da testuaz haraindiko emakumearen presentzia hori irakurketa ohituretan eta jakin nahi izan da nork gomendatu eta erraztu dion liburua umeari, norekin konpartitu duen eta, azkenik, irakurketaren katebegia amaitzeko nori gomendatu dion, baldin eta norbaiti gomendatu badio.

² Hemendik aurrera Haur eta Gazte Literatura HGL bezala izenpetuko dugu.

Hirugarrenik, ikerketa honek irakurketa ohituretan generoa aztertzeo helburu ageria du, testuaren nahiz kontestuaren esparruan. Generoaz mintzo garelarik, femeninoaz ari gara, maskulinoa unibertetsala baita. Genero femeninoa genero asimetrietatik letorke, maskulinoa modu hegemonikoan gailentzen den heinean. Literatura asko idatzi da idazkera femeninoaz eta generoaz. Eduki hauek aski ondo laburbiltzen dituzten bi testu aipatuko ditugu: Isolina Ballesterosen *Escritura femenina y discurso autobiográfico en la nueva novela española* (1994) eta Biruté Ciplijauskaitéren *La novela femenina contemporánea (1970-1985). Hacia una tipología de la narración en primera persona* (1994). Bi egile hauek idazkera femeninoaren hainbat kontzeptu argitan jarri dituzte: ardatz tematikoak, emakumezkoek erabilitako estiloak, literatur pertsonaia femeninoak... Tendentzia hauek denak ere Kritika anglosaxoi feministak *Feminist Agenda* gisara izenpetu ditu. *Feminist Agenda* (Lasarte, 2012) honen ageriko aldagaiak sartu dira ikerketa honetan emakumezkoen nondik norakoa testuatzeko: egileak, ardatz tematikoak, literatur pertsonaia eta ilustrazio femeninoak...

3. HELBURUAK

Ikerketa honen lehen helburua 11-12 urteko neska-mutilen irakurketa ohituretan feminizaziorik gertatu den ikertzea da. Hartara, irakurleek eginitako irakurketei loturik, aztertu nahi izan da emakumearen presentzia testuan nahiz kontestuan. Abiaburutzat hartzen den hipotesia honakoa litzateke: HGL-an feminizazioa neurri apal batean gertatzen ari bada, modu horretan islatu beharko litzateke haur eta gazte irakurleen irakurketa ohituretan ere.

Bigarren helburua feminizazioa antzemateko erreminta eraginkorra kausitzea litzateke, horretarako egin beharreko proba guztiak egin behar baldin badira ere. Inkesta bat atondu da eta galdetu beharrekoekin modu zehatzean asmatu nahi izan da eta era berean erantzun beharreko zehaztapen eta nabardurak erantzun itxietan ondo jaso nahi izan dira. Horretarako, eranskinetan azaltzen den María Angeles Antón Sierrak (2004) testu liburuetan emakumearen presentzia antzemateko eginitako galdetegian azaltzen diren galderak nahiz erantzunak oso izan dira presente.

Hirugarrenik, galdetegi honetan nahitaez emakumearen aldagaia testu moduan nahiz kontestuan sartu behar izan dugu. Aldagai hau ahalik eta modurik eraginkorrenean eta zehatzean paratzea litzateke hirugarren helburua, ikerketaren emaitzak denik eta objektiboenak eta exhaustiboenak lortze aldera, nahiz eta zentzu honetan jakitun izan euskal literaturan estreinakoz egiten dela gisa honetako azterketa eta berrikuntzak berekin duela erratzea eta behin eta berriro berregitea.

4. METODOA

Ikerketa honen abiaburuan bi galdera nagusi leudeke: lehen galderak, literatur sistemaren feminizazioa antzeman daiteken irakurketa ohituren bidez jakin nahiko luke. Tesi eta ikerlan asko ezagutzen ditugu literaturan generoa³ aztertzen dutenak, ez horrela, emakumearen presentzia literatur sistema osoa kontuan izanda: egile gisa, gai modura, irakurle gisa, kritikari gisa, editore modura, eta irakurketa ohiturek zeharkatzen duten eremu zabalean sartuta legokeen agente modura: irakaskuntzan, liburutegietan, etxean... Bigarren galdera litzateke, lehenaren erantzuna baiezkoa balitz, nola sortu ikerketa honetarako erreminta eraginkor bat? Bi galdera hauen gainean eraiki ditugu ikerketa honetan aipatu berri ditugun helburuak, bi galdera hauen erantzunak aurkitu nahian.

Datuak jasotzeko erabili den erreminta, Orfelio G. León eta Ignacio Monterok (2004) metodo deskriptibotzat joko luketen ikerketa honetan, galdetegia da. Galdetegiak atal diferenteak ditu. Lehen atalean galdera irekia jarri dugu azken ikasturtean egindako irakurketez galdezka. Bigarren atalean bi sail bereizi dira: bat eskolari bideratua eta bestea etxeari. Horrela ikusi nahi izan da eskola eta etxearen artean generoaren kudeaketan alderik dagoen. Eskolari nahiz etxeari dedikatutako sailetan zazpi galdera daude, denak ere itxiak. Lehen hirurek testuaren inguruan galdetzen dute, azken laurek, ordea, kontestuaren inguruan. Nork gomendatu zien liburua, nork erraztu zien, norrekin partekatu zuten, eta azkenik, nori gomendatu zioten baldin eta gomen-datu bazuten. Erantzunak kodifikatzeko orduan, bi modutara egin da. Lehen hiru galderetan generoa femeninoa nahiz maskulinoa modu zehatzean adierazi da. Ez, ordea, azken lau galderetan; horrela, laugarren galderan itaundu zaie nork gomendatu zien liburua. Lehen erantzun gisa, irakasleria azaltzen da gerora neska edota mutila den zehazteko; lagunak, neska edo mutila den zehazteko. Hirugarren galdera arte eta laugarren galderatik aurrera erantzunetan erabilitako kodifikazio diferente hauek, beraz, galdetuek erantzunetan generoa zehazteko duten gaitasuna zedarrizteko erabili dira.

Aldagaiak dagokienez, bi erabili eta gurutzatu dira: batetik, inkestatutako mutila eta neskaren sexua, eta bestetik, literatur sistemak eskaintzen dituen barietate guztiak, hauek ere generoa ondo zehaztuarekin. Esan nahi da, idazleaz mintzo garelarik, generoa markatu dugula, edota literatur pertsonaia nahiz marrazkiez aritu garenean generoa zehaztu dela, edota irakurketetan laguntzaile gisa azaldu diren elementu guztietan ere generoa azpimarratu dela.

Galdetegia ikertzailearen laguntzarik gabe egin da eta eskoletako tutoreen bidez. Ikerketa 11-12 urteko 300 neska mutilek osatutako eskola

³ *Genero eta identitatea Kattalin Eleizegiren antzelanetan* (2011), Amaia Alvarez. *Pertsonaia protagonista femeninoen ezaugarriak eta bilakaera euskal narratiba garaikidean* (2011), Gema Lasarte.

komunitatean egin da, D ereduan Gasteizen irakasten duten 20 bat ikaste-txeetatik modu konbentzionaletan aukeratutako 4 ikastetxeetan. Komunitatearen adina eta Haur eta Gazte Literaturaren euskarazko irakurketa izan dira irizpide bakarrak ikertutako mostraren hauturako. Esan behar da populazioaren inguruan eta laginarenaren inguruan, ikerketa honek ez duela inolako asmorik datuak orokortzeko, generoa antzematean leudekeen tendentziak markatzeko baizik. Emaizak aztertu ahal izateko SPSS 19.0 erabili da. 300 galdetegitik 283 izan dira onak, eta horietarik 146 mutilenak eta 137 neskenak izan dira.

5. EMAITZAK

Galdetegiaren lehen itauna irekia da eta galdetzen da azken ikasturtean irakurritako izenburuaz, egileaz nahiz gogoan dituzten gaien inguruan. Helburutzat du galdera honek, beraz, egindako irakurketetan modu zabalean emakumezkoen presentzia nola gogoratzen duten antzematea. Erantzunak oso esanguratsuak dira, izan ere, galdetutako % 39ek bakarrik aipatzen du emakumezkoen presentzia egindako irakurketetan, beste 60.1ek ez du emakumezkoen presentziarik azaltzen buruturiko irakurketetan. Hau da, ez du esplizitatzen emakumezko egilerik, ezta emakumezko literatur pertsonaia protagonistarik edota emakumezkoekin lotu daitezkeen gairik ere.

Taula 1
Emakumearen presentzia irakurketetan


		Frekuentzia	Portzentajea	Portzentaje baliagarria	Portzentaje gehitua
Balio dutenak	Azaltzen da emak.	113	39.9	39.9	39.9
	Ez da azaltzen	170	60.1	60.1	100.0
	Guztira	283	100.0	100.0	

Azken aspektu honen harira, umeek irakurri dituzten gaien inguruan alegia, abenturazkoak dira nagusiki gailentzen direnak, beti ere oso urrun emakumezkoen gaietatik⁴ amatasuna, familia edota genero indarkeria kasurako. Abenturen gaia eskolan egindako irakurketetan % 85.5ean azaltzen da, etxean egindakoetan % 86.2an azaltzen delarik. Maitasuna, amatasuna eta genero indarkeria gaitzat hartuta apenas antzematen dira eskolako

⁴ Duránek eta Rey-k honen harira modu zabalean lantzen dituzte emakume idazleek modu sistematikoan erabilitako gaiak. Ikus bibliografía (1987:345).

nahiz etxeko irakurketetan. Gairik nagusienak, beraz, abenturazkoak dira, jarraian inguru fisiko eta soziala (eskola, ingurugiroa, jendartea) delarik. Beldurra ere ardatz tematiko inportantea bilakatzen da euren irakurketetan. Ikasle bakoitzak gai bat baino gehiago aukeratu du, beraz, gai bakoitzaren garrantzia ehunekoetan neurtu da eta grafikoetan ere halaxe azaltzen da.

Taula 2
Egindako irakurketetan antzemandako gaiak eskolan eta etxean



Literatur pertsonaien azterketari atxikiz, emaitzek begi bistan jartzen dute galdetuek generoa gogoratzeko edota antzemateko duten zailtasuna, izan ere, gehiengoak erantzuna «besteak» bezala adierazten du, horrela azaltzen da eskolan egindako irakurketetan % 64an eta etxean egindakoe-tan % 66.8an. Eskolan aurkitu dugun literatur pertsonaia femeninoen zenbatzea % 7.1ekoa da, gizonezkoena % 18koa. Literatur pertsonaia feme-ninoen presentzia handiagoa da etxean egindako irakurketetan, % 8.5koa, gizonezkoena, % 11.3koa. Ilustrazioen estimazioa askoz ere apalagoa da, beste gai batzuk azaltzen baitira nagusiki euren erantzunetan: animaliak, paisaiak. Generoaren pertzepzioa ilustrazioetan ez da % 3ra ere iristen.

Gomendatutako liburuen inguruan, eskola esparruan nahiz etxekoan igartzen da irakasleria dela gehien gomendatzen duena, edota liburuak irakurtzera animatzen duena. Irakasleriatik, gizonezkoak dira % 30ean gehien gomendatzen dutenak, hala adierazten da erantzunetan. Irakurketa partekatze-ko orduan badago aintzat hartzeko nabardura genero artean, ho-

Taula 3
Etxean egindako irakurketetan topatu dituzten pertsonaiak


		Frekuentzia	Portzentajea	Portzentaje baliagarria	Portzentaje gehitua
Balio dutenak	Erantzunik ez	3	1.1	1.1	1.1
	Emakumea	24	8.5	8.5	9.6
	Gizonezkoa	32	11.3	11.3	20.9
	Animalia	34	12.0	12.1	33.0
	Besteak	189	66.8	67.0	100.0
	Guztira	282	99.6	100.0	
Galduak	Sistema	1	0.4		
	Guztira	283	100.0		

rrrela neskek eskolan neskekin konpartitzen dute irakurketa% 20.4an eta etxean % 31.4an eta mutikoeke ere tendentzia bera markatzen dute, eskolan % 15.1ean neskekin konpartitzen baitute eta mutilekin % 8.2an eta etxean berriz, % 21.3an emakumezkoekin eta % 13an gizonezkoekin. Beraz, neskek nahiz mutilek emakumezkoekin konpartitzen dute nagusiki irakurketa, tendentzia hori markatzen dute emaitzek.


Orain arte galdetegiaren emaitza orokorrek azaldu ditugu, hemendik aurrera generoa nabarmen azaltzen den kasuetan gaiaren aldagaia eta galdetutakoen sexuak gurutzatuko ditugu. Horrela, lehen esan dugu zenbatze orokorrean emakumearen presentzia % 39.9koa dela galdetutakoen irakurketa ohituretan, eta absentsia % 60.1ekoa. Emakumearen presentzia agerian uzten duen portzentajea, % 39.9koa, gurutzatu dugunean galdetutakoen sexuarekin, antzeman dugu neskek egindako irakurketetan emakumezkoaren presentzia % 51.1koa dela, mutilek egindakoetan % 29.5koa izanik. Galdetutako mutilen % 70.5ean emakumezkoa ez da azaltzen. Beraz, datuek esaten dute emakumezkoek irakurketa femeninoagoa egiten dutela % 21.6an.

Interesagarria den beste datu bat da literatur pertsonaia maskulinoaren nagusitasuna eskolan nahiz etxean. Baina datu hau zertxobait aldatzen da literatur pertsonaiaren aldagaia eta galdetutakoen sexuak gurutzatzen direnean. Horrela neskek eskolan nagusiki literatur pertsonaia maskulinoak irakurtzen dituzte % 15.3an eta emakumezko literatur pertsonaiak % 9.5ean. Baina etxerako irakurketetan hau aldatu egiten da, nesken etxeko irakurketa hautuetan literatur pertsonaia femeninoa % 13.9an azaltzen da eta % gizonezkoa 5.8an. Ez horrela galdetutako mutilen irakurketetan, izan ere, eskolan nahiz etxean egindako irakurketa hautetan gizonezko literatur pertsonaia protagonistaren nagusitasuna begi bistakoa da.

Taula 4
Emakumezkoek eta gizonezkoek egindako irakurketetan emakumea



Taula 5
Literatur pertsonaia emakumeek egindako irakurketetan



Irakurketa gomendioak galdetutakoen sexuarekin gurutzatutakoan hainbat nabardura aurkitu ditugu. Mutiletan nabaria da etxean nahiz eskolan gizonezkoen nagusitasuna azpimarratzen dutela gomendioak aintzazkotzat hartzeko orduan. Nesken ohituretan aldaketatxo bat gertatzen da. Horrela, neskek diote eskolan irakasle gizonezkoak gomendatutako libururak % 10.9an irakurtzen dituztela eta neska irakasleak gomendatutakoak berriz % 9.5ean. Etxeko irakurketetan kontua aldatzen da, irakasle neskek gomendatutakoa % 16.1ean irakurtzen dute eta irakasle gizonezkoek gomendutakoa % 2.2an. Etxeko irakurketetan, emakumezko kasuetan, emakumea nagusitzen da gomendio kontuetan.

Datu orokorretan ikusi dugu gizonezkoek nahiz emakumezkoek irakurketa partekatzeko orduan emakumeen hautua egiten dutela, beraz, ez dugu aldagaien gurutzaketarik erakutsiko. Baina bai, azkenik, irakurketa ohiturak edota irakurketa hauek nola transmititzen dituzten edota gomendatzen dituzten. Horrela, ikusten da aldagaiak gurutzaturik, neskek irakurtzen dutena nagusiki % 80an beste neskei gomendatzen dietela eskolan, eta gauza bera etxean irakurtzen dutenarekin nagusiki neskei gomendatzen dietela. Mutilek ere joera bera dute, izan ere, eskolan nahiz etxean egindako irakurketak % 80an mutilei gomendatzen diete, hori bai, ahaztu gabe datu hauen azpian datu orokor bat dagoela esaten duena % 70ek ez duela libururik gomendatzen. Beraz, gomendatzen duten neska mutilen % 30aren emaria litzateke azkenekoa.

6. EMAITZEN EZTABAIDA ETA ONDORIOAK

Lehen helburuaren inguruan, hau da, ikerturiko populazioaren irakurketa ohituren feminizazioaren inguruan, azpimarratu beharreko tendentziarik nagusia, lehen ondorio gisa, populazio honek bere erantzunetan generoa zehazteko orduan agertzen duen zailtasuna litzateke. Zailtasun maila hau ahanzturatik, generoari aski garrantzia ez ematetik edota egin diren galderak behar adineko zehaztapena ez izatetik eratorria litzateke. Gaiei dagozkien erantzunak oso garbiak eta zehatzak dira, baina literatur pertsonaiaren generoaren inguruan galdetutakoan erantzunak, arestian esan berri dugun legez, «besteak» erantzunez markatzen dira. Horrela, galdetutakoen % 64.0ek etxean eta % 66.8ek eskolan esaten du irakurri dituen literatur pertsonaiak ez direla ez maskulinoak, ez femeninoak, ezta animaliak ere, «besteak» baizik. Gogoratzen duten gutxiek ondo markatzen dute literatur pertsonaia protagonista edota ilustrazioetan nagusiki azaltzen denaren sexua.

Galdetu zaienean nork gomendatu dien liburua edota norekin konpartitu duten berriro nagusiki azaltzen da «besteak». Adibide modura, inkestatutako 283 ikaslek galdetu zaienean nork gomendatu dien eskolan liburua, 35 ikaslek ez dute erantzuten, 26 ikaslek neska irakaslea aipatzen dute, 31 ikaslek mutil irakaslea aipatzen dute, 13 galdetutakoek neska lagun bat, 10ek lagun bat, 5ek liburuzaina (neska), 3k liburuzaina (mutila), 2k aita,

batek ama eta gainerako 157 galdetuek «besteak». Ikusten den bezala, zailtasunak dituzte liburua gomendatu ziotenaren sexua zehazteko eta hautu nabarmena horren aurrean «besteak» da.

Zailtasun nabarmen honez gain, lehen helburuari begira, ikusi eta ondorioztatzen dugu emakumearen presentzia % 21.6 handiago dela galdetutako emakumezkoetan, eta oro har, irakurketa kontestuan emakumezkoaren figura emakumezko galdetuetatik hurbilago azaltzen dela. Esan behar da ondorio gisa, modu hegemonikoan gizezkoen figura azaldu bada ere, nabaria dela emakumearen presentzia alor guztietan, nahiz eta oso bigarren mailan izan, baina tendentzia hor markatua geratzen dela. Kasu bakar batean nagusitzen da emakumearen presentzia, irakurketa partekatzeako orduan, baina kasu honetan esan behar da mutilen kasuan % 76.7ek «besteak» bezala erantzun duela edota ez duela erantzun eta nesken kasuan berriz % 64.2ek gauza bera egin duela.

Ikerketa honek bigarren helburutzat zuen irakurketen feminizazioa haute-mateko tresna egokia aurkitzea. Zentzu horretan jarraian aipatuko ditugu hainbat kontu egindako galdetegia hobetze aldera. Lehenik eta behin aitortu behar da inkestako lehen galdera irekia irekiegia dela ondoren generoa zehaztu ahal izateko. Galdera honetan batzuek gogoratzen dituzte egileak, gaiak eta izenburuak, baina gehienentzat galdera orokorregia suertatu da. Proposatzen da hurrengo baterako galdera mugatzea ikasturtera, baina ikasturte horretan irakurri duten liburuen artean gustukoena izan duten liburura. Irakurri dituzten liburu guztien artean baten bat gustukoa izan badute errazago da liburu honen informazioa oroimenean gordeta izatea eta aldi berean gaitasun handiago edukitzea liburuan parte hartu duten egile, ilustratzaile, literatur pertsonaia nahiz testuinguruan liburu honekin loturiko pertsonen generoa gogoratzea.

Galdetegiarri aurkitu zaion bigarren akatsa erantzun guztietan generoa modu zehatzean proposatu ez izana da. Lehen esan dugu (ikus 6 orr.), testuari begira eginiko galderetan, generoa modu zehatzean agertzen zela erantzunetan, ez horrela testuingurua azaltzeko galdetegiko erantzunetan, lehenik generikoa eta ondoren, neska edo mutila azaltzen baitzen. Ondorioztatzen da galderek zehatzak izan behar dutela eta erantzunetan generoak ondo markatua azaldu behar duela. Nork gomendatu zizun liburua? irakaslea (neska); irakaslea (mutila), ama, aita, anaia, arreba, ahizpa, amona, aitona... Ez zaio utzi behar zalantzari zirrikiturik, galdetuak bestela ere arazoak izango baititu gogoratzeako orduan.

Azkenik, hirugarren xedetzat ikerketa honek generoaren aldagaia literatur sisteman paratzea zuen eta horretarako generoaren aldagaia sartu da testuan nahiz testuinguruan emakumearen presentzia modu zehatzean antzemateko, hau da, emakumezkoaren presentzia imaginarioan nahiz eskola eta etxearekin loturiko irakurketa esparruan aurkitzeko. Konfirmatzen da aldagai honekin egin den erabilpenaren balioa testuetan emakumearen nondik norakoa aztertzeako edota testuinguruan Even-Zoharren literatur sistema kontzeptua gure eginez. Hartaz, hirugarren ondorio modura esan behar da

erabili ditugun emakumearen aldagai guztiak modu zehatzean azaltzen dutela literatur sistemaren feminizazioa.

Beraz, eta bukatzeko, esan daiteke genero aldagaiak ikerketa honetan ondo erabili direla. ez horrela, galdetegiak, azken hauek zehazteko premia ikusi baita, ezta inkestetan ikerlariak ez egotea ere, izan ere, euren presentzia ezak galdetegien ulermena nekezagoa bihurtu duela baloratzen da.

Baina ondorio nagusi modura, esan daiteke Euskal Literaturan, Haur eta Gazte literaturan, irakurketa ohituretan feminizazioa gertatzen ari dela eta horren lekukotza da ikerturiko ikasle komunitateak egindako irakurketetan antzeman den emakumearen presentzia, nahiz eta betiere, gizonezkoen presentzia baino apalagoa izan.

7. ETORKIZUNARI BEGIRA

Ikerketa honek hiru helburuen azpian zuen galdera nagusiarik modu baikorrean erantzuten dio esanez, oso dela interesgarria irakurketa ohituren landa genero asimetrien diagnosis egiteko. Hau da, hizkuntza den bezala hizkuntzaren erabilpen sexista neurtzeko, edota testu liburuak diren bezala emakumearen agerpena *curriculumeam* zenbaterainokoa den jakiteko.

Lehen galderaren erantzunak, beraz, ikerketa lerro berriak irekitzen ditu euskal literaturan, izan ere, irakurketa ohiturak aztertuz generoaren diagnosis egin ahal izango dugu. Horrela mostra ezberdinak edota komunitate ezberdinen irakurketak aztertuta jakin genezake norainoko presentzia duen emakumeen munduak edota mundu maskulinoak nagusitzen jarraitzen duen gure literaturan.

Baina bigarren galderari lotuz, metodorik edota erremintarik eraginkorrena aurkitzeari buruz, pentsatzen dugu galdetegiak hutsuneak izan dituela ondorioetan azaldu dugun bezala eta hainbat zuzenketa egin beharko liratekeela. Haratago joanik, aurreikusten dugu gisa honetako ikerketak emaitza hobekak izango lituzkeela ikerketa kualitatibo (Goetz eta Le Compte, 1988) bat eginaz, hau da, galdetegiak eta eztabaida taldeak erabiliz eta ondoren emaitzak sistema kategorialen bidez analizatuz. Pentsatzen dugu gainera, galdetutako populazioak beste adin bat eduki beharko lukeela generoaren inguruan kontzientzia handiago izateko eta emaitzak ere denik eta zehatzagoak izateko. Beste muga bat gure ikerketari ikusi dioguna, tutoreengan lana laga izana da. Gisa honetako ikerketan ikertzaile taldeak oso koordinatua egon behar du eskoletako tutoreekin. Proposatzen da ikerketa hau bera egitea baina, adibidez, Irakasle Eskolako ikasleekin eta aipaturiko metodoak erabilia, horrela, ikerketak tendentziak ez ezik emaitzak ere askoz argiagoak eta esanguratsuak emango lituzke.

Jasotze-data: 2012/06/11

Onartze-data: 2012/12/04

This article publishes an investigation into the reading habit and gender. This research was conducted in four schools in Vitoria-Gasteiz in the academic year 2011-2012. The main objective of this study was to investigate the validity of the habit of reading for the diagnosis of gender asymmetry in the Basque literary system of children's literature. In this research involved 300 students. In the data analysis use the SPSS 19. This research concluded that the reader field is a very interesting field to examine the situation of women in the literary system and also highlights the trend of the feminization of reading.

Keywords: *Reading habit, gender, literary system, Children's and youth literature.*

Este artículo publica una investigación sobre el hábito lector y el género realizada en cuatro escuelas de Vitoria-Gasteiz en el curso escolar 2011-2012. El objetivo principal de esta investigación era indagar en la validez del hábito lector para diagnosticar la asimetría de género en el sistema literario vasco de literatura infantil y juvenil. Para analizar el sistema literario mediante la lectura de la población encuestada se elaboró un cuestionario para alumnos-as de 11-12 años. En esta encuesta que han tomado parte 300 alumnos-as se manejaron distintas variables para detectar la presencia de la mujer tanto en el texto como en el contexto. Para el análisis de datos se utilizó el sistema SPSS 19.0. Esta investigación concluye que el campo lector es un campo muy interesante para escudriñar la situación de la mujer en el sistema literario y además subraya la tendencia de la feminización de la literatura infantil y juvenil vasca, hipótesis de la que partía esta investigación, aunque matiza que todavía las mujeres leen un mundo imaginario en un 21.6 % más femenino que los hombres.

Palabras clave: *Hábito lector, género, literatura infantil/juvenil, sistema literario.*

Cet article rend compte d'une enquête sur les habitudes de lecture et le sexe. Cette recherche a été menée dans quatre écoles de Vitoria-Gasteiz au cours de l'année scolaire 2011-2012. L'objectif principal de cette recherche était d'enquêter sur la validité de l'habitude de lecture pour diagnostiquer l'asymétrie entre les sexes dans le système littéraire Basque de littérature d'enfance et de jeunesse. Dans cette enquête on impliquée de 300 élèves. Cette étude conclut que le lecteur est un domaine très intéressant d'examiner la situation des femmes

dans le système littéraire et met également en évidence la tendance à la féminisation de la littérature basque pour enfants.

Mots clé: *Habitude de lecture, genre, système littéraire, littérature pour enfants et jeunes.*

BIBLIOGRAFIA

- Alvarez Uribe, A. (2011). *Genero eta nazio identitateak Kataline Eleizegiren antze-lanetan*. Bilbo: EHU/UPV.
- Antón Sierra, M.A. (2004). *Manual para el profesorado. No da igual. Uso no sexista del lenguaje*. Books.google.es
- Ballesteros, I. (1994). *Escritura femenina y discurso autobiográfico en la nueva novela española*. New York: Peter Lang.
- Boersner, J. (2008). *La lectura: ¿Un asunto de mujeres?* 2012ko urriaren 22an hartua, [http:// www.papelenblanco.com/2008/01/04-la-lectura-un-asunto-de-mujeres](http://www.papelenblanco.com/2008/01/04-la-lectura-un-asunto-de-mujeres)
- Camps, V. (2003). *El siglo de las mujeres*. Madril: Feminismos Cátedra.
- Castells, M. (2007). *Mujeres y hombres ¿Un amor imposible?* Madrid: Alianza Editorial.
- Cerrillo, P. (2005). «Nuevos tiempos. ¿Nuevos lectores?», *OCNOS* 1, 19-33.
- Ciplijauskaité, B. (1994). *La novela femenina contemporánea (1970-1985). Hacia una tipología de la narración en primera persona*. Barcelona: Anthopos.
- Durán, M. A. eta Rey, J. A. (1987). *Literatura y vida cotidiana. IV jornadas de Encuentros Interdisciplinares*. Universidad Autónoma de Madrid.
- El Anuario sobre el libro infantil y Juvenil. (2011). *Cifras y estadísticas*. Madrid: SM.
- Etxaniz, X. (2011). «Actividad editorial en euskara. Pequeños avances», en *Anuario sobre el libro infantil y juvenil 2011*. Madrid: SM, p. 55-63.
- Etxaniz, X. (2010). «Actividad editorial en euskara. Buena cosecha», en *Anuario sobre el libro infantil y juvenil 2010*. Madrid: SM, p. 43-52.
- Even-Zohar, I. (1990). *Polysystem Studies*. Durham: Duke University Press.
- Federación de Gremios de España. (2011). *Hábitos lectores y compra de libros 2010*. Madril: Ministerio de Cultura.
- Freixas, L. (2009). *La novela femenil y sus lectoras*. Córdoba: Servicio de Publicaciones Universidad de Córdoba.
- Gilbert, S. eta Gubar, S.. 1944 (1988). *La loca del desván, la escritora y la imaginación literaria del siglo XIX*. Madril: Feminismos Cátedra.
- Goetz, J. eta Le Compte, M. (1988). *Etnografía y diseño cualitativo en investigación educativa*. Madril: Moraza.
- Gómez Bueno, C. et al. (2001). *Identidades de género y feminización del éxito académico*. Madrid: MEC.
- Lasarte, G. (2011). *Pertsonaia protagonista femeninoen ezaugarriak eta bilakaera euskal narratiba garaikidean*. Bilbo: EHU/UPV.

- Lasarte, G. (2012). *Feminist Agenda euskal narratiba garaikidean*. Bilbo: EHU/UPV.
- Moil, T. 2006 (1988). *Teoría feminista literaria*. Madrid: Cátedra.
- Molina, L. (2006). «Lectura y educación: los hábitos lectores y su repercusión académica en Educación Secundaria Obligatoria», en *Revista OCNOS*, 2, 103-120.
- Muñoz, J.M. eta Hernández, A. (2008). «Hábitos lectores de los alumnos de la ESO en la provincia de Salamanca ¿Son el género y el entorno factores diferenciales?». *Revista de Educación* 354, 605-628.
- Pérez, P.; Novo, M. et al. (2008). «Lectura y género: leyendo la Invisibilidad», en José María Asensio et al. *XXVI Seminario Interuniversitario de Teoría de la Educación. Lectura y Educación*. Universitat Autònoma de Barcelona.
- Rodríguez Menéndez, M.C. (2008). «Mujeres y hombres y lectura. Las diferencias de género en los hábitos de lectura de libros, revistas y periódicos», en J.M. Asensi et al. *XXVI Seminario Interuniversitario de Teoría de la Educación. Lectura y Educación*. Universitat Autònoma de Barcelona.
- Showalter, E. (1977). *A Literature of Their Own, British Women Novelists from Brontë to Lessing*. Londres: Princenton, Virago.
- Yubero, S. eta Larrañaga, E. (2010). «El valor de la lectura en relación con el comportamiento lector. Un estudio sobre los hábitos lectores y el estilo de vida en niños», *OCNOS* 6, 7-20.

ERANSKINAK

1 eranskina: Irakurketa ohituren inguruko inkesta

2010/2011 (irailetik irailera) ikasturtean irakurritako literatur liburuen gaineko ohituren inguruan lehen hezkuntzako 5. eta 6. mailako ikasleei bideratutako galdeketa

ERANTZULEA:

NESKA

MUTILA

1. Joan den urtean zenbat liburu irakurri zenituen? _____

Eskolan agindutakoak _____

Zure kontura _____

2. Gogoratzen dituzu izenburuak eta egilearean izenak. hala izandakoan idatz itzazu.

<p>A. Eskolan agindutakoen inguruko galdera-erantzunak (erantzun bat baino gehiago eman daiteke)</p> <p>1. Gai nagusiarekin akordatzen zara?</p> <p>Abenturazkoak <input type="checkbox"/></p> <p>Maitasuna <input type="checkbox"/></p> <p>Heriotza <input type="checkbox"/></p> <p>Beldurrezkoa <input type="checkbox"/></p> <p>Familia <input type="checkbox"/></p> <p>Amatasuna <input type="checkbox"/></p> <p>Eskola <input type="checkbox"/></p> <p>Ingurunea <input type="checkbox"/></p> <p>Genero indarkeria <input type="checkbox"/></p> <p>Ume eta gazteen mundua <input type="checkbox"/></p> <p>Bestelakoak <input type="checkbox"/></p>	<p>B. Zure kontura irakurritako liburuen inguruko galdera-erantzunak (erantzun bat baino gehiago eman daiteke)</p> <p>1. Gai nagusiarekin akordatzen zara?</p> <p>Abenturazkoak <input type="checkbox"/></p> <p>Maitasuna <input type="checkbox"/></p> <p>Heriotza <input type="checkbox"/></p> <p>Beldurrezkoa <input type="checkbox"/></p> <p>Familia <input type="checkbox"/></p> <p>Amatasuna <input type="checkbox"/></p> <p>Eskola <input type="checkbox"/></p> <p>Ingurunea <input type="checkbox"/></p> <p>Genero indarkeria <input type="checkbox"/></p> <p>Ume eta gazteen mundua <input type="checkbox"/></p> <p>Bestelakoak <input type="checkbox"/></p>
<p>2. Eta pertsonaia protagonista nagusia gogoratzen duzu?</p> <p>Emakumezkoa <input type="checkbox"/></p> <p>Gizonezkoa <input type="checkbox"/></p> <p>Animalia <input type="checkbox"/></p> <p>Bestelako zerbait <input type="checkbox"/></p>	<p>2. Eta pertsonaia protagonista gogoratzen duzu?</p> <p>Emakumezkoa <input type="checkbox"/></p> <p>Gizonezkoa <input type="checkbox"/></p> <p>Animalia <input type="checkbox"/></p> <p>Bestelako zerbait <input type="checkbox"/></p>
<p>3. Azaltzen ziren marrazkiak gogoratzen dituzu? (erantzun bat baino gehiago eman daiteke)</p> <p>Emakumeak <input type="checkbox"/></p> <p>Animaliak <input type="checkbox"/></p> <p>Paisaiak <input type="checkbox"/></p> <p>Gizonak <input type="checkbox"/></p>	<p>3. Azaltzen ziren marrazkiak gogoratzen dituzu? (erantzun bat baino gehiago eman daiteke)</p> <p>Emakumeak <input type="checkbox"/></p> <p>Animaliak <input type="checkbox"/></p> <p>Paisaiak <input type="checkbox"/></p> <p>Gizonak <input type="checkbox"/></p>
<p>4. Nork gomendatu zizun liburua?</p> <p>Irakasleek gomendatuta <input type="checkbox"/></p> <p>Neska <input type="checkbox"/></p> <p>Mutila <input type="checkbox"/></p> <p>Lagun batek</p> <p>Neska <input type="checkbox"/></p> <p>Mutila <input type="checkbox"/></p> <p>Bibliotekakoak <input type="checkbox"/></p> <p>Neska <input type="checkbox"/></p> <p>Mutila <input type="checkbox"/></p> <p>Aitak <input type="checkbox"/></p> <p>Amak <input type="checkbox"/></p> <p>Bestelakoak <input type="checkbox"/></p>	<p>4. Nork gomendatu zizun liburua?</p> <p>Lagun batek</p> <p>Neska <input type="checkbox"/></p> <p>Mutila <input type="checkbox"/></p> <p>Bibliotekakoak <input type="checkbox"/></p> <p>Neska <input type="checkbox"/></p> <p>Mutila <input type="checkbox"/></p> <p>Aitak <input type="checkbox"/></p> <p>Amak <input type="checkbox"/></p> <p>Bestelakoak <input type="checkbox"/></p>

<p>5. Nola eskuratu duzu?</p> <p>Erosi <input type="checkbox"/></p> <p>Aitak <input type="checkbox"/></p> <p>Amak <input type="checkbox"/></p> <p>Lagunen batek utzi <input type="checkbox"/></p> <p>Neska <input type="checkbox"/></p> <p>Mutila <input type="checkbox"/></p> <p>Eskolako liburutegitik <input type="checkbox"/></p> <p>Edota udal liburutegitik <input type="checkbox"/></p> <p>Bestelakoak <input type="checkbox"/></p>	<p>5. Nola eskuratu duzu?</p> <p>Erosi <input type="checkbox"/></p> <p>Aitak <input type="checkbox"/></p> <p>Amak <input type="checkbox"/></p> <p>Lagunen batek utzi <input type="checkbox"/></p> <p>Neska <input type="checkbox"/></p> <p>Mutila <input type="checkbox"/></p> <p>Edota udal liburutegitik <input type="checkbox"/></p> <p>Bestelakoak <input type="checkbox"/></p>
<p>6. Norbaitekin konpartitu duzu liburuaren irakurketa?</p> <p>Lagun batekin <input type="checkbox"/></p> <p>Neska <input type="checkbox"/></p> <p>Mutila <input type="checkbox"/></p> <p>Irakaslearekin <input type="checkbox"/></p> <p>Neska <input type="checkbox"/></p> <p>Mutila <input type="checkbox"/></p> <p>Amarekin <input type="checkbox"/></p> <p>Aitarekin <input type="checkbox"/></p> <p>Nebarekin <input type="checkbox"/></p> <p>Arrebarekin <input type="checkbox"/></p> <p>Ahizparekin <input type="checkbox"/></p> <p>Amonarekin <input type="checkbox"/></p> <p>Aitonarekin <input type="checkbox"/></p> <p>Besteekin <input type="checkbox"/></p> <p>Neska <input type="checkbox"/></p> <p>Mutila <input type="checkbox"/></p>	<p>6. Norbaitekin konpartitu duzu liburuaren irakurketa?</p> <p>Lagun batekin <input type="checkbox"/></p> <p>Neska <input type="checkbox"/></p> <p>Mutila <input type="checkbox"/></p> <p>Irakaslearekin <input type="checkbox"/></p> <p>Neska <input type="checkbox"/></p> <p>Mutila <input type="checkbox"/></p> <p>Amarekin <input type="checkbox"/></p> <p>Aitarekin <input type="checkbox"/></p> <p>Nebarekin <input type="checkbox"/></p> <p>Arrebarekin <input type="checkbox"/></p> <p>Ahizparekin <input type="checkbox"/></p> <p>Amonarekin <input type="checkbox"/></p> <p>Aitonarekin <input type="checkbox"/></p> <p>Besteekin <input type="checkbox"/></p> <p>Neska <input type="checkbox"/></p> <p>Mutila <input type="checkbox"/></p>
<p>7. Gustatu zitzaizun? Hala izandakoan norbaiti gomendatu zenion?</p> <p>Bai <input type="checkbox"/></p> <p>Neska bati <input type="checkbox"/></p> <p>Mutil bati <input type="checkbox"/></p> <p>Ez <input type="checkbox"/></p>	<p>7.-Gustatu zitzaizun? Hala izandakoan norbaiti gomendatu zenion?</p> <p>Bai <input type="checkbox"/></p> <p>Neska bati <input type="checkbox"/></p> <p>Mutil bati <input type="checkbox"/></p> <p>Ez <input type="checkbox"/></p>

2. ERANSKINA

María Ángeles Antón Sierrak (2004) testu liburuetan emakumezkoen presentzia neurtzeko erabilitako galdetegia

Analiza tu libro de texto⁵, siguiendo estas pautas de análisis:

1. Título del texto.
2. Materia de la que trata.
3. Autoría (referenciar el sexo).
4. ¿Qué actividades/ocupaciones se mencionan o ilustran?
niñas X niños X mujeres X hombres X
5. ¿Cuántas ilustraciones aparecen para cada sexo?
niñas X niños X mujeres X hombres X
6. ¿Cuántas veces menciona el texto?
Mujeres/niñas hombres/niños
7. ¿Qué adjetivos se utilizan para describirlos?
niñas X niños X mujeres X hombres X
8. Describir el lenguaje utilizado en el texto.
¿Es sexista y androcéntrico?
9. ¿Se omiten contribuciones significativas de mujeres u hombres?
10. ¿Se presenta a los hombres y mujeres desempeñando roles tradicionales en actividades, intereses, ambiente familiar, ocupaciones, etc.?
11. ¿Qué clase de rol aparecen desempeñando niños y niñas?

Fuente: Programa Born Free, Universidad de Minnesota, Estados Unidos (Andrée Michel, 1987).

⁵ Real Decreto 3881/92, de 15 de abril, regula la supervisión de libros de texto y materiales curriculares, que deberán reflejar en sus textos e imágenes los principios de igualdad de derechos entre los sexos.